

## FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Gure zerbitzua aurrera atera ahal izatako argi dago funtsezko baliabide desberdinak erabili behar ditugula, azken finean baliabide hauek balio-proposamena garatzeko, bezeroengana iristea, haiekin harremanak izateko eta diru-sarrerak lortzeko erabiliko ditugu. Baliabide mota hauei esker, gure zerbitzua sortzeko eta etorkizun batean zerbitzua leku gehiagotara zabaltzeko balio izango digu. Gainera, funtsezko baliabide hauek multzoka banatzerakoan gure zerbitzua aurrera ateratzeko aktibo nagusiak jorratuko dira. Horretarako funtsezko baliabide hauek hiru multzo nagusitan banatu ditugu.

Alde batetik, baliabide fisikoak egongo dira. Hauek, gastu gehien izango dute. Atal honetan lokalaren alokairua, bezeroekin harremanetan jartzeko mugikorra eta wifi tarifa, zerbitzuan zehar egingo diren ekintzetan erabiliko diren eserleku eta mahaiak eta ekintzak egiteko material guztia sartuko zen.

Beste alde batetik, baliabide intelektual eta giza baliabideak banatu ditugu. Atal honetan bakoitzaren gaitasunak kontuan hartu ditugu. Lokala barrutik nola diseinatzeko gaitasuna Garazi eta Izaskunen esku utziko dugu, Garazik ekintza desberdinak pentsatzeko eta aurrera eramateko gaitasuna dauka, Izaskunek aldiz, jendearekin komunikatzeko gaitasuna du, oso baliagarria izango zen bezeroekin harremana izateko orduan.



Aneren kasuan, lokalaren diseinua era berezi eta bakarrean pertsonalizatzeko gaitasuna du, haurrentzat leku berezi eta gogoko bat bilakatzeko. Maialenek salmentarako gaitasunak ditu, hori dela eta bai diru sarrerak lortzeko baita bezeroekin hitz egiteko balioko zuen.

### LABURBILDUZ

Garazi	- Barne diseinua - Ekintzen antolamendua
Izaskun	- Barne diseinua - Jendearekin komunikazioa
Maialen	- Salmentarako gaitasuna
Ane	- Diseinu pertsonalizatuak



Azkenengo atala finantza-baliabideak izango ziren. Baliabide hauekin gure zerbitzuak lortu nahi dituen helburuetara iristeko beharrezkoak diren azpi puntuetan oinarritzen da. Hau da, hasiera batean herri batean sortuko dugun zerbitzu bat izaten hasiko da. Etorkizunera begira, gure zerbitzuak arrakasta izaten ari dela ikusten

badugu beste herri batzuetan zerbitzua eskaintzeko baliabide hauek erabiliko ditugu: gure aurrizkiak, soldatak, herri mailako diru laguntzak eta baita crowdfundingaren bidez lortutakoarekin. Parte hartuko duen jendearen soldatak ordaintzeko balioko zuen.